

## **Cristóbal Balenciaga. 50 urteko Ondarea**

***2018an museoak hausnarketa bati ekin dio Cristóbal Balenciagaren obrak duen ondare-balioaren inguruan: bere oraingo indarraldia eta legatua.***

***Cristóbal Balenciaga Museoak, testuinguru horretan, erakusketa handi bati helduko dio martxoan, eta ikerketa, sorkuntza eta teknifikazioa sustatuko ditu modari lotutako profesionalentzat hezkuntza-proiektu desberdinetatik abiatuta.***

**Getaria, 2018ko urtarrilaren 9a.** Aurten, 2018an, Ondarearen Europako Urtean, Cristóbal Balenciaga Museoak hausnarketa bat egingo du Getariako sortzaile ospetsuaren obrak osatzen duen ondarearen balioari buruz.

Izan ere, 1968an, duela 50 urte, erretiroa hartzea, zituen etxeak ixtea, eta bere ibilbide profesionalari eta bere ziklo sortzaileari azkena ematea erabaki zuen Balenciagak; mende-erdiko ibilbidea, alegia, Donostian aurreneko *atelierra* 1917an ireki zuenetik, bere lankideek zioten errespetuak eta nazioarteko goi-mailako jostuntzan lortutako goren mailak bermatua.

Perfekzioa, ateporalitatea, abangoardismoa, edo artea soilik, horiek dira kontzeptuak, lankideek, prentsa espezializatuak, edo modaren historian adituek sarri asko identifikatu izan dituztenak XX. mendean eragin handienetakoa izan duen diseinatzaileetako baten obrarekin, Balenciaga bere garaian bertan kultuko jostun bilakatzeraino.

Saloietakoko eta Tailerretako jarduna amaitzen den unetik, azkeneko bilduma aurkezten denetik, Balenciagaren sorkuntzak euren balio materiala eta sinbolikoa gainditzen hasten dira modako jantzi diren aldetik –iragankorrak, definizioz– ondare bihurtzeko.

Hala hasten dira lehenengo bildumak eratzen eta mundu osoan zehar hainbat erakusketa antolatzen: Gustav Zumstet ehun-sortzailearen eskutik –jostunaren gertuko kolaboratzailea– 1970ean eskaini zitzaion aurreneko erakusketa Zuricheko Bellerive museoan. Hil ostean, urtebete geroago, 1973an, Diana Vreeland moda-editoreak goi-mailako jostuntzako maisuari eskainitako atzera begirako lehenengo

erakusketa handia antolatu zuen New Yorkeko Metropolitan Museum of Art-en. Ordurako, Cristóbal Balenciagak berak dohaintzan eman zion museo horri bere sortze-lanaren parte bat erretiroa hartu aurretik.

Ondoren, *El Mundo de Balenciaga*, Madrilgo Arte Eder Jauregian, 1974an; jostunaren omenez Espainian egindako aurreneko erakusketa. Frantzia izan zuen lehenengo erakusketa, berriz, Lyoneko Musée Historique des Tissus-eko *Hommage á Balenciaga* izan zen.

Ondoren, erakusketa hauek egin zitzaizkion: *Balenciaga*, Fashion Institute of Technology, New York, 1986; *Cristobal Balenciaga*, Fondation de la Mode, Tokyo, 1987; *Homenaje a Balenciaga*, Bartzelonako Erreginaordearen Jauregia eta Donostiako Miramar Jauregia, 1987; *Balenciaga Paris*, Parisko Musée des Arts Décoratifs, 2006; eta *Balenciaga Spanish Master*, New Yorkeko Queen Sophia Spanish Institute, 2010, 2011ko ekainean Getarian Cristóbal Balenciaga Museoa sortu aurretik egin zitzaizkion erakusketetako batzuk aipatzearen.

Testuinguru horretan, Cristóbal Balenciaga Museoa aurkezten duen programazioak Jostunaren lanaren ondare-alderdi hori ikusgai jartzea du helburu, baita orain duen indarraldiaren eta jostunaren legatuaren inguruan hausnarketa bat egitea ere.

## **“Balenciaga. Iraultza eta legatua”**

### **2018ko martxoak 24 – 2019ko urtarrilak 27**

“Balenciaga. Iraultza eta legatua” (behin-behineko izenburua) erakusketak ibilbide diakroniko bat proposatzen du, jostunak bere lanaren ondoz ondoko etapetan izan zuen eboluzioa erakusten diguna. Hala, erreferentziatzko erakusketa bat izan nahi du Cristóbal Balenciagak eraikitako ondarea sakonetik ulertu eta ezagutzeko: nondik abiatzen da, zer ekarpen egiten du bere garaian, eta zer transmititzen digu gaur.

Jostunaren hastapenetako erreferenteetatik Parisen sortu zuen azken bildumaraino, eta Pret a Porter-en egin zuen sarraldi bakarra AirFrance-ko azafatentzako diseinua sortzean, Balenciagaren iraultzak eta legatuak atzera egiteko aukera ematen digute, baita XX. mendea neurri handi batean gogora ekartzeko ere.

Diskurtso kronologikoa, osatua eta testuinguruan kokatua, museoko bildumaren ondare-ikuspegitik abiatuta eraikia, eta erakusketak oinarritzat hartua, proposamen ireki bat bezala ikusten da, bizia eta hazten doana, etorkizunean ezagutza-geruza berriak gehitzen joango dena, baita teknologia berriek eskaintzen dizkiguten aukerak ere.

Erakusketak museoko 900 m2 hartuko ditu 2018ko martxoaren 23tik 2019ko urtarrilaren 27ra arte, eta 90 jantzi-pieza hartuko ditu barnean, horietatik 30

museoan aurretik ikusgai jarri izan ez direnak.

Hautatutako piezek Balenciagaren sortze-prozesuaz hitz egiten digute: azterketa formala, jostunak hain ondo menderatzen zituen teknikan eta ehunean oinarritua, berrikuntza jantzietan silueta berriak barneratzean, eta horiekin batera, femininotasunaren ideia berriak, eta perfekzionismoa, bere lanaren bilakaeran ezaugarri, maisuaren ibilbidean zehar etengabeko progresio-ziklo batean.

Horiekin batera, beste baliabide batzuk: dokumentazioak, irudiek, objektuek, patroiek, ehunek, bere bizitzaren eta lanbidearen testuinguruarekin lotzen gaituzte.

Bestalde, teknologia agertzen da digitalizazioen bitartez interaktibotasuna errazteko, pieza baten xehetasuna (megapixela), bere 360°-ko ikuspegia, bere eraikuntza teknikoaren gaineko infografiak behatu ahal izateko, edo hainbat ibilbide tematiko proposatuko dituen app-a.

Museoa itxita egongo da urtarrilaren 29tik martxoaren 23ra arte, erakusketa-aldaketagatik.

## **Ondarea indartzen**

Ondarea zaintzea eta hedatzea, irisgarriagoa izan dadin, oinarritzko bi funtzio dira museoen DNAn. Ondarearen jabe gizartea izatea, orainaldian erabili eta ospatzea, berau babestuz betiere, horixe da gainera museoen erronka nagusietako bat.

Hala, museoak aurten proposatzen duen programak ikerketa, sorkuntza, eta teknifikazioa sustatzen ditu modari lotutako profesionalentzat, euren bildumen ildotik eta museoan zaintzen den ondarea sorkuntza berriaren eta ekintzailetzaren zerbitzura irekiz.

## **Ondarea eta Sorkuntza berria**

Zalantzarik gabe, Cristóbal Balenciagaren legatuaren garaikidetasunak inspirazio-iturri izaten jarraitzen du oraingo sortzaileentzat, eta museoaren garrantzizko zeregina da jostunaren lanaren, bere teknikaren eta balioen ezagutza belaunaldi berriei transmititzea.

"Balenciaga and the Revolution of the Silhouette" proiektuak, 2016az geroztik Museoak sustatua sortzaile eta CSM London-eko irakasle Elisa Palomino-ren aholkularitzarekin, Moda Diseinuko nazioarteko sei eskola entzutetsuenetako irakasleak eta ikasleak bildu ditu: Central Saint Martins (UAL, Londres, Ingalaterra), The Royal Danish Academy of Fine Arts (Kopenhage, Danimarka), Iceland Academy of the Arts (Reykjavik, Islandia), Shenkar College of Engineering, Design and Arts (Ramat Gan, Israel), Seika Kyoto University (Kyoto, Japonia) eta Parsons the New School of Design (New York, Estatu Batuak).

Gaiei dagokienez, alderdi batean jartzen du arreta berezia proiektuak, zalantzarik

gabe Cristóbal Balenciagak modaren historiari egindako ekarpen handienetako bat osatzen duen batean: silueta berriak barneratzea, ehunez, airez eta gorputzez eginak, zeinekin emakumeak identifikatu ahal izango ziren.

Idea horretatik abiatuta eta Getariako sortzailearen obra bere museoan zuzenean aztertuz, eta bere bildumen artxibora sarbidea emanez piezen hautaketa bat aztertzeko, parte-hartzaileek, ondoren, ikasle bakoitzaren banako proiektu gisa, euren ikerketa- eta sorkuntza-prozesua garatu dute, eta haiek sortutako look original batean gauzatzen dira emaitzak, bai euren irakasleek bai proiektuaren museoko arduradunek baloratuak.

Proiektua berez txertatzen da Eskola horietako curriculumean eta hala erreferentziazko gune bihurtzen da Getaria diseinatzaileen belaunaldi berrientzat, aukera izan dutenentzat zuzenetik ezagutzea jostunaren sorlekua, ingurunea eta lana.

Proiektuan parte hartu duten 150 ikasleen proposamen sortzaileen hautaketa bat museoan aurkeztuko da baterako erakusketa batean 2018ko maiatzetik aurrera, proiektuaren aholkulari Elisa Palominoren\* zuzendaritzapean.

Bilbao Art&Fashion-ekin izandako elkarlanaren bitartez, 12 euskal gaztek parte hartu dute prozesu honetan.

\* Elisa Palominok, Londreseko Central St. Martins College of Art-en master-ikasketak bukatu ondoren, John Galliano, Christian Dior, Diane Von Furstenberg, Roberto Cavalli, Moschino eta antzeko moda-firma ospetsuentzat lan egin zuen. Luxuzko firmei lotutako ibilbide zabal baten ondoren, postu garrantzitsuak betez, bere bilduma propioa atera zuen 2010ean. Bilduma harekin aurkeztu zituen bere sorkariak New Yorkeko, Milango, Erromako, Madrilgo eta Londreseko modaren astean. Modu paraleloan, ibilbide entzutetsu bat egin du irakaskuntzan, moda-diseinatzaile eta -profesionalen belaunaldi berria inspiratuz. 2002tik kurtsoak ematen ditu zentro garrantzitsuetan, adibidez, Londreseko Central Saint Martins eta London College of Fashionen, Florentziako Polimodan, New Yorkeko Fashion Institute of Technology, San Frantziskoko Academy of Art Universityn, Danimarkako Arte Ederretako Errege Akademian eta Parisko ESMODen, besteak beste. 2012tik Central Saint Martins College of Art-eko Moda eta Estanpatua saila zuzentzen du.

### **Teknikazioa eta ekintzailetza**

Balenciagaren legatuak eta berau hedatzeak aukera interesgarriak sorrarazten dizkie gainera modaren sektoreko profesionaleri eta ekintzaile berriei.

Arlo horretan, Kutxa Fundazioaren laguntza jasotzen du museoak erakundearen Kutxa Kultur Moda programaren bitartez.

### *II. Uda Ikastaroa*

Aurten izango da *Cristóbal Balenciaga Museoa Uda Eskolaren II. edizioa*, Euskal

Herriko Unibertsitateak Donostian antolatutako uda ikastaroen barruan, modaren komunikazioarekin zerikusia duten gaiei helduko diena. Proiektu hori urtero egiten den elkarraldi batean gauzatzen da, sektoreari lotutako profesionalentzako teknifikazioa xede hartuta. Bestalde, udazkenean, aurreikusita dago gai horietan espezializatutako lantegiak Getarian egitea.

#### *“Transmisioak” programa*

Masterclass-ak saio teoriko/praktikoak dira, Cristóbal Balenciagaren legatua ezagutzera emateko oso gaituta dauden profesionalak ematen dituztenak, eta Delpozoko modelaje arduradun Javier Martín izango da protagonista.

Bestalde, teknologia berrietan espezializatutako Ikastaroak daude aurreikusita, bai museoan bai Kutxa Kultur Moda gunean, Tabakalera.

#### *Tokiko diseinuaren gunea*

Ekintzailatza eta tokiko sortzaileak babestu nahian, museoak abian jarriko du urtarrilean, eta bigarren aldiz, deialdi bat ekintzaileek eta modako osagaien tokiko markek museoan gune bat –show room bat– izan dezaten euren lanak erakutsi eta, modarekiko sentikor, museoa bisitatzen duen nazioarteko publikoaren aurrean ikusgarritasuna emateko.

Aurreko edizioan oso harrera ona izan zuen deialdi honek zortzira arte gehituko du hautatuen kopurua. Ondoren, hautatuen artean – deialdi bakar batean parte hartuz – museoak planteatzen dituen bi lagapen-aldietako baterako (martxo eta uztaila bitartean edo abuztua eta Abendua bitartean) hautatuko dira. Parte-hartzaile bakoitzarentzako erakusketa-gunea handitu egingo da gainera.

Jardueren programazioa beste kultur proposamen batzuekin osatuko da, modaren eta Cristóbal Balenciagaren irudiaren inguruan: jardueren programa familientzat, oporraldietako programa haurrentzat, DYS lantegiak eta publiko orokorraren helmenean izango diren jardueren aldeko apustua.

### **2017ko datuak**

2018 ekitaldiari 1.646.000 euroko aurrekontu zenbatetsiarekin aurre egingo dio museoak, eta bertan nabarmenezkoa da % 4ko gehikuntza ekarpen publikoetan (1.213.000 euro guztira).

Oraingo ekitaldi hau 2017ko emaitza onak ditu abiaburutzat: 51.300 bisitari Getariako museoak erakusketetara, hau da, aurreko urtea baino % 14 gehiago, eta % 30eko batez besteko gehikuntza museoak hezkuntza-programaren proposamen desberdinen erabiltzaileetan.

Bisitarien jatorriari dagokionez, datuen arabera, nabarmena da publiko atzerriarraren presentzia (guztizkoaren % 40), aurreko urteekiko gehitu egin dena, eta horien artean nagusitzen dira publiko frantsesa (bisitari guztien % 20

nazionalitate horretakoak izan dira), estatubatuarra (% 5), britainiarra (% 4) eta alemana(% 2).

Tokiko (EAE) publikoa museoko bisitari guztien % 42 izan da (Gipuzkoa % 23, Bizkaia % 15 eta Araba % 4); beste erkidego batzuetako publikoa, berriz, bisitari guztien % 58 izan da. Erkidego igorle nagusien artean hauek nabarmentzen dira: Madril (bisitari guztien %10), Katalunia (% 8), Nafarroa(% 7), eta Valentziako Erkidegoa (% 5), Aragon eta Asturias (% 3).

Bisitarien kopurua handitu izana, Gipuzkoako turismoaren joera faboragarriaz gain, bat dator Mr. Rachel Mellon-en bildumari buruzko urteko erakusketak (aurtengo urtarrilaren amaierara arte zabalik) izan duen oihartzun handiarekin, Donostian Balenciagaren tailerra ireki zeneko mendeurrenaren ospakizunarekin, eta horrek berekin ekarri dituen aurkezpenekin Madrilen eta Parisen.

2017ko ekitaldian hauek izan dira nabarmentzekoak diren beste alderdi batzuk: Cristóbal Balenciaga Museoa I. Uda Eskolaren irekiera, EHUren, Donostia Sustapenaren eta Kutxa Fundazioaren lankidetzarekin; museoaren presentzia Google edukien “We wear culture” plataforman, hiru erakusketa digitalekin eta nazioarteko ikusle-kopuru handiarekin; modan espezializatutako nazioko eta nazioarteko hezkuntza-erakundeekin sinatutako lankidetzarako hitzarmenak; tokiko diseinuari eskainitako gunearen irekiera arrakastatsua, eta programa baten garapena Kutxa Fundazioarekin lankidetzan, hezkuntza-premia bereziak dituen publikoari zuzendua.

### **Informazio gehiagorako:**

Zuriñe Abasolo Izarra

[zurine.abasolo@fbalenciaga.com](mailto:zurine.abasolo@fbalenciaga.com) / Tel.: 943 00 47 77 - 647 410 775

### **BIDEOA “Balenciaga and the Revolution of the Silhouette” Hezkuntza proiektua**

<https://wetransfer.com/downloads/cb570d3d70a1e7a93261d302edfe538c20180105012507/54e0eacb743ecccde39fba002a203cbe20180105012507/50c6c5>

### **ARGAZKIAK 2018rakoPROGRAMA**

<https://we.tl/9AUQnnoWX3>

